

## Operazio Zuzendaritzako Masterreko diploma banaketa

2014/12/15

Masterrarekin pertsona eraldatzea nahi da, gauzak egiteko modua aldatuko dion ikuspegi integrala eskaintzea. Horrek erakundea aldatzera eramango du, enpresa-emaitzak lortze-aldera. Horretarako, metodo praktikoa erabiliko da. Taldekako lan egingo dira eta banakako amaierako proiektua, profesionalak, prestatzeaz gain, enpresetan garatuko diren benetako proiektuen bitartez ikasteko gai izan daitezten, erakundeko prozesuak hobetzen dituzten hein berean. Praktikoak izatearen ezaugarriari esker, erabiltzen duen metodologiagatik aitzindaria da Estatuan.

Masterrak bertaratuei ingurune berri lehiakorretako industria-kudeaketaren ikuspegi integrala eskaintzen die eta metodologia eta tresna berritzaile eta erreferenteetan gaitzen ditu. Gainera, enpresaren behar estrategikoetara egokituriko eta pertsonalizaturiko industria-kudeaketako ereduak diseinatzeko beharrezko gaitasunak garatzen laguntzen die. Azken finean, hala prozesuak eta adierazleak nola enpresen emaitza ekonomikoak eta finantzarioak hobetzeko balio du masterrak.

Masterra 2013ko otsailetik 2014ko ekainera bitartean eman da, Bilboko Merkataritza Ganberan. Guztira 10 ikaslek jaso zuten diploma, 500 orduko Masterra egin ondoren.

10 ikasleek 12 urtetik gorako batez besteko lan-esperientzia dute, eta ingeniartzen esparruko enpresetakoak dira batik bat: produkzioko, plantako, industriako zuzendaritzako karguak dituzte edo proiektuburuak dira edo logistikako ardura dute, besteak beste.

